

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**KAPARETASUN UNIBERTSALA ETA EUSKAL IDENTITATEA XVIII.
MENDEKO MERKATAL ELITEAN**

Amaia Rojo Sierra

Historia Graduko 4. Maila

Tutorea: Álvaro Aragón Ruano

Erdi Aroa, Aro Berria eta Amerikako Departamentua

Laburpena:

Gradu Amaierako lan honen helburua euskal identitatearen eta kaparetasun unibertsalaren arteko loturak aztertzea da. Gainera, identitate euskaldun baten existentziaz hausnartuko da, identitatearen kontzeptu bera ere ezbaian jarritz.

Horrenbestez, hau dena aurrera eramateko, XVIII. mendeko merkatal elitea hartuko dugu subjektu historikotzat. Hots, Monarkia Hispanikoaren inperioko merkatu sarean arrakasta izan duten merkatari gizon aberatsen kasuak aztertuko dira, merkatal elite honen identitate *euskaldun* hori nola adieraziko den identifikatuz.

Hitz gakoak: Monarkia Hispanikoa, identitatea, euskalduntasuna, kaparetasun unibertsala, kongregazioak, odol garbitasuna.

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta helburuak	3
2. Zer da identitatea: definizioak eta historiaren erabilera.....	3
3. Iturrien izaera subjektiboa: mugak eta abantailak	7
4. XVIII. mendeko testuingurua: merkataritza igoera sozial gisa.....	8
5. Identitate adierazpenak: Euskal nortasun bateratu elitista baten kontzientzia.....	12
5.1. Odol garbitasunaren garrantzia euskal kapare irudian	14
5.2. Migrazio prozesuak euskal irudi bateratu baten adierazle	15
5.3. Kongregazioen funtzioak: euskal kapare irudiaren babesetik identifikatutako nortasun elementuak.....	18
5.4. Euskal merkatarien loturak eta batasunak eta elite baten identitate adierazpenak.....	20
6. Probintzien izaera juridikotik emandako identitatea	22
7. Ondorioak	23
8. Bibliografia.....	26
9. Artxiboak.....	29

1. Sarrera eta helburuak

Lan honek euskal identitatearen eta kaparetasun unibertsalaren loturen arteko hurbilpen bat egitea du helburu. Bi elementu hauen elkarreragina aztertzeko XVIII. mendeko merkatal elitea (eta kasu askotan hauen adierazpenak) hartuko ditugu subjektu historikotzat. Hau da, Monarkia Hispanikoaren inperioan zehar dagoen merkatal eliteak identitate euskaldun¹ hori nola identifikatuko duen aztertzea.

Horretarako, merkatariak bloke gisa aztertuko ditugu, hau da, pertsona jakin batzuk baino, subjektu historiko homogeneousat hartuko ditugu, orokortzeak ekartzen dituen arazoez kontziente izanik. Beraz, nahiz eta kasu askotan adibide gisa indibidualtasunean oinarritu, sistema induktibo bat erabiliko da lanaren arrazoiketarako (adibide partikularretatik abiatuta).

Gainera, aurrerago azalduko den merkatal euskaldunaren parametro eta ezaugarri nagusiak definitzea ere lan zaila izango da. Azken batean, nire lanaren oinarria merkatari hauek ikuspegi hori nola lantzen duten ikustea da, hots, merkataritza jarduera batetik, euren kapare kondizioa nola defendatzen duten, eta beraz, noblezia hori aitortzen dien orube edo lurraldearekiko erlazioak nolakoak diren adieraztea. Horrenbestez, sentimendu edo ideia baten inguruko lana genuke hau, eta hauek ikerketaren premisa nagusiak diren heinean, ikerketa lan bat baino, interpretazio lan bat izango genuke.

2. Zer da identitatea: definizioak eta historiaren erabilera

Hori dela eta, identitateari buruz hitz egiten dugunean, hainbat aspektu kontutan hartzea komeni da. Hasteko, kontutan izan behar dugu ordena kontzeptual desberdin baten mugitzen garelako, eta beraz, perspektiba historiko batetik aztertu behar dugula identitatea. Hots, identitate bezalako kontzeptuak jorratu nahi ditugun heinean, egungo parametro eta irizpideetatik ihes egiten duen perspektiba historikoa erabili behar dugu, kontzeptuok garai desberdinetan identifikatzeko eta aztertzeko gai

¹ Lanean zehar euskaldun hitza askotan errepikatuko da. Kontutan izan behar dugu ere, euskaldun termino bera ere modernoa dela eta beraz, garai honetan zonalde euskaldun bati buruz hitz egitea ere (kontutan izanda lanaren ildoak) oso kontraesankorra dela.

izateko, eta ondorioz, hauen bilakaera eta testuingurua modu zuzenago batean ulertzeko.

Horregatik, hainbat kontzeptu auzipean jartzea beharrezkoa dugu. Izan ere, zer da identitatea? Are gehiago, zer suposatzen du XVIII. mendean euskaldun izatea? Nola ulertu dezakegu euskal identitatea nortasun espainiarraren barnean? Azken batean, existitzen al da Espainia? Oro har, euskaldun identitate baten adierazpen eta existentziaz hitz egin dezakegun aztertzea dugu helburu.

Ikuspegi hauek jorratzen dituzten lanak aztertzeari ekiten zaionean, arazo larri batekin topatzen gara: egungo historialariek ere ondo definitu eta identifikatu ohi ez dituzten eta kasu askotan elkarren arteko tira-birak sortzen dituzten kontzeptu edo ideiei buruz jardun nahi dugula lan honetan. Hots, Monarkia Hispanikoa bera ere ondo definitua ez dagoen kontzeptua izanik, hortik aurrera egin daitezkeen irakurketa gehienak egungo parametro ideologiko batzuen menpe gelditzen dira. Izan ere, Monarkia Hispanikoaren², Espainiaren eta Espainiaren honen ideiaren inguruan sortzen diren irakurketa distorsionatuek minoria den identitate honen azterketa bera zailtzen dute. Beraz, nekez ulertuko dugu identitatea zer den, Monarkia Hispanikoaren barruan nola txertatzen den eta euskaldunek euren burua nola ikusten zuten, gaur egun historialariek ere honen kontzeptu, identifikazio eta onarpenean bat egiteko gaitasunik ez duten heinean.

Gainera, kontutan izan behar dugu, euskaldunek eurek zuten euskalduntasun nortasunaren ideien inguruan jardun behar dugula, hau da, euren buruaz Espainiaren ideia nagusiaren barnean zuten ikuspegiari buruz, alegia. Jon Arrieta Alberdik dioen bezala, *ideia baten ideiarri buruz* (Arrieta, 1998: 40). Eta horrenbestez, ikerketa objektibo bat asko zailtzen duena. Gainera, Espainia hitza erabiltzean, kontutan izan behar dugu Espainiaren ideien inguruan hitz egiten gaudela, eta ez Espainiari berari buruz.

Hori dela eta, hainbat kontzeptu aztertzea komeni da, hau da, garai horretan eta gaur egun dugun kontzeptuekiko ulermena ahalbideratuko duen zubi bat

² Monarkia Hispanikoa monarka baten menpe dauden lurralde eta erreinu desberdinen aglomerazioa bezala ulertua (Belenguer, 2001: 12).

eraikitzea beharrezkoa dugu. Hots, kaparetasuna, noblezia, jatorrizko izatea edota identitate bezalako kontzeptuen izaera atemporal eta inobilistaren ustetik ihes egin behar da, horretarako, hauen historitatea eta testuinguruarekiko garatzen duten aldakuntza aldarrikatuz. Ezin baititugu gaur egungo identitate euskalduna XVIII. mendeko identitate euskaldunarekin bateratu.

Hasteko, Real Academia Española-n bilaketa bat eginez gero, garaiko identitatearen definizioa aurkitu dezakegu, eta horrekin, termino hauekiko zuten pertzepzioa. Izan ere, XVIII. mendean aurkituko dugun identitatearen definizioa hau litzateke: *razón en virtud de la qual son una misma cosa en realidad, las que parecen distintas. Identidad de razón: Aprensión del entendimiento con que tienen por una misma cosa las que son realmente distintas* (Real Academia Española, 1734). Hau da, identitatea latinezko *Identitas* kontzeptuarekin lotzen da, eta ez lurraldetasun edo nortasun sentimendu batekin. Definizio hau, mende osoan zehar bere eran mantenduko da, hots, identitateak objektu berdintsuek duten egoera bati egiten die erreferentzia, eta beraz, identifikatzea *establecer identidad entre dos o más objetos* litzateke (RAE, 1853).

Terminoaren definizio edo perspektiba honen aldaketa, XIX. mendearen erdialdean emango da lehen aldiz, gaur egun dugun identitatearen kontzepziora gehien hurbiltzen den definizioa ematen duen heinean:

Conciencia que tiene una persona de sí misma. Sistema de la Identidad, doctrina sostenida por Schelling³, filósofo alemán, en la cual todos los objetos existentes o que pueden concebir el pensamiento, son considerados bajo el punto de vista de la identidad, o sea de su unidad existencial (RAE, 1855).

Gaur egun, ordea, definizio honekin topatzen gara: *Conjunto de rasgos propios de un individuo o de una colectividad que los caracterizan frente a los demás; Conciencia que una persona tiene de ser ella misma y distinta a las demás* (RAE, 2015). Ikusi

³ Erromantizismoko filosofo honek (1775-1854) *Ideas sobre la Filosofía de la Naturaleza* (1797), *Sistema de Idealismo Trascendental* (1800) eta *Filosofía del Arte* (1802-1803) lanetan gizakiaren eta naturaren arteko batasunetik sortzen den identitate absolutu bat planteatzen du (Renero, 2007: 25).

daitekeen bezala, testuinguru historiko, politiko, ekonomiko edo filosofikoaren (Schelling filosofiaren ekarpena honen adibide) garapenarekin batera terminoen esanahiak ere aldatuz joaten dira, garaiko errealitate sozialaren eredura moldatuz doazen heinean (eta horrekin batera, errealitate hauen isla bihurtzen dira).

Horrenbestez, garai horretan ez dugu aurkituko identitatea nortasunarekin lotuko duen idatzirik. Izan ere, horren orde, natural edo oriundo bezalako kontzeptuak erabiltzen zituzten (hauek ere historian zehar eraldaketak jasan dituztelarik). Izan ere, oso ugariak dira migratu duten euskaldunei erreferentzia egiten dien dokumentazioetan natural eta oriundo kontzeptuen bereizketa bat egitea. Bi terminoek, jatorriarekin zerikusia badute ere, “natural de” aurkitzen dugunean, jaiolekuari egiten zioten erreferentzia, hau da, *el que ha nacido en algún Pueblo o Reyno. Naturalis* (RAE, 1734). Are gehiago, XVI. mendeko hiztegieta ikusi daitekeen bezala, natural latinezko *natio* (nazioarekin) lotzen da, *nativo* izaera hori aitortuz (RAE, 1570). Eta beraz, oriundo lurralde baten jatorrizkoa litzateke, originario dena, *descendiente* (RAE, 1791) bezala ere aurkeztua. Hau da, *la persona que tiene ascendencia u origen en un país determinado* (RAE, 1757).

Horregatik, askotan “natural de” eta “oriundo de” kontzeptuak bereiziaz agertuko zaizkigu⁴. Kontutan hartzeko beste faktore bat *vecino* terminoa litzateke, normalean natural-ekin uztartzen dena, eta orokorrean momentuko bizitokiari erreferentzia egiten diona⁵.

Fenomeno hau kaparetasun unibertsala bezalako kontzeptuetan ere ematen da, izan ere, hasieran sortzen den kaparetasunaren terminoaren eta XVIII. mendean izango duen erabileraren artean testuinguru historikoaren araberako aldaketa edo birmoldaketak jasango ditu. Guk, egun historiografia tradizionalak ohiko bihurtu duen “*instrumento central de la actuación política*” (Soria, 2006: 286) gisa aztertuko dugu. Hots, jokabide politikorako tresna nagusia bihurtuko den heinean.

⁴ Plácido Huarte Jauregui nafarra adibidetzat har dezakegu. Honen kaparetasun aitortza pleitoan, “natural de Madrid y oriundo de Echalar”. Valladolideko Errege Txanzileriako Artxiboa (ARCHV), Sala de Hidalgo, Caja 1251, 8.

⁵ ARCHV. SALA DE HIJOSDALGO. CAJA 1108.66 edo 1721ko “Pleito de José Domingo Goyoneta y Echarri, y su hermano Juan Antonio, vecinos de Sevilla, originarios de Guipúzcoa”. ARCHV, Sala de Hidalgo, Caja 1078, 89.

3. Iturrien izaera subjektiboa: mugak eta abantailak

Azken batean, historialariok erabiliko ditugun iturriak, kasu honetan subjektiboak izango dira, hots, interpretazioen interpretazioak hartzen ditugu kontutan. Horrenbestez, eta iturri idatziekin askotan gertatu ohi den bezala, iturri primario hauen objetibotasun ezaz kontziente izatea beharrezkoa bada ere, hauen subjektibotasun horretaz profitatzeko aukera dugu, hau bera aztergai dugun heinean (Pérez León, 2012: 288). Hau da, kasu anitzetan denaren eta izan nahi denaren arteko muga oso lausoa denez, esaten ez dena esaten dena bezain garrantzitsu bihurtzen da, eta errealitate ezkutu hauek “kolektibo” hauen pentsamoldera hurbiltzen gaituzte erabat.

Horrekin batera, subjektu historiko gisa euskal merkatariak hartzea oso interesgarria izan daiteke, azken batean, foruek eta beraz, kaparetasunak ematen zituen abantailek jarduera hauek modu “naturalago” batean garatzea ahalbideratzen baitzuen, Monarkia Hispanikoko beste lurraldeetako nobleziarekin alderatuz (Arrieta, 2014: 802). Dena dela, merkatari euskaldunen elementu funtsezkoenetakoa hauen dualitatea izango zen, merkatari eta era berean, noble, hots, jarduera ekonomiko askotan izango dute presentzia, kasu askotan euren goi mailako izaera galdu gabe. Horregatik, euskal jauntxoak ere merkatal, diru mailegatzaille edota bankari izan zitezkeen, askotan lanbide haien arteko talkarik ematen ez zen heinean, eta testuinguruaren arabera moldatzen joaten ziren (Javier María de Munibe, Peñafloredako kodea, dugu adibide esanguratsuenetako bat).

Gainera, XVIII. mendeko koiunturak ate berriak irekiko dizkio euskal merkatarien jardueren aniztasun honi, borboitarrekin batera, merkatariak bakarrik ez diren euskaldun elite baten koroarekiko influentziaren loraldi uneari hasiera ematen zaionean (Fernández de Pinedo, 1999: 354; Astigarraga, 2003: 15-16).

Baina, kontuan izan behar da, noble irudi idealizatu baten transmisioan oinarritzen den kolektibo honek askotan merkataritza jarduera hauek omititu edo ezkutatu egingo dituela dokumentazioan (Felices de la Fuente, 2010: 250), nobleziarekin bat ez zetozen jardueren “kontrako” aurreiritzia oso zabaldua baitzegoen (Pérez León, 2012: 274). Jarraian aztertuko dugun XVIII. mendeko

koiunturaren aldaketa handienetako bat suposatu zuen karguen eta estatus edo omen sozialaren arteko erlazioak zuzenean eragin zuen ikuspegi honetan.

4. XVIII. mendeko testuingurua: merkataritza igoera sozial gisa

Arestian esan bezala, XVIII. mendea aldaketa garaia izango da. Euskaldunen influentziaren eta identitatearen azterketa baten ikuspegitik, oso mende interesgarria, hasiera eta bukaera desberdinak dituen heinean, eta ondorengo prozesu edo “sormen” identitario batzuen oinarriak ezarriko dituelako. Esan daiteke XVIII. mende hasiera euskal foralitatearen gailurra eta XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera talka egoera izango duela ezaugarritzat mende honek (foruen kondizioen eta estatu zentralaren artekoa, alegia) (Arrieta, 1998: 73; Imízcoz, Bermejo, 2017: 298). Erregearen zerbitzu eta merkatal elite euskaldun eta nafarraren presentzia bai monarkiaren nola inperio kolonialaren baitan ugaria eta oso eraginkorra izan zen XVIII. mendean zehar, batez ere, Felipe V. aren “El Animoso” lehen errege borboitarren gortean (Imízcoz, 2016: 130).

XVII. mendean zehar, euskal probintziek eta Nafarroak inperioaren baitan zuten posizio juridiko instuzionala irmotu zuten, euren izaera juridiko bereizgarri horren defentsa, orubeak berak ematen zuen kondizio unibertsal horrengatik babestuz joan zen, eta beraz, irudi kolektibo baten agerpena ere aurkeztu zen. Historialariek mende hau foruen finkapen garai bezala kontsideratzen dute (Arrieta, 1998: 47; Soria, 2006: 286).

Gainera, esan daiteke, Carlos I.aren eta Felipe II.aren garaian ere egon zirela euskaldunak (batez ere gipuzkoarrak) gortean idazkari eta kontulari gisa, baina XVIII. mendeko fenomenoarekin lotzea ezinezkoa da (Arrieta, 1998: 46). Dena dela, hauen influentzia sareak historiografia tradizionalak XVIII. mendera mugatzen baditu ere, testuinguru honetan txertatu beharko litzateke aurrerako jorratuko dugun Carlos II.aren garaiko Francisco Zavala y Mendoza bizkaitar prokuradoreak proposatu zuen kongregazio edo anaidi euskaldun baten sorrera (Angulo, 2012: 59, 2016: 281).

Erregearen zerbitzupeko XVIII. mendeko euskaldunen eta nafarren loratzea, estuki loturik egon zen borboitarren erreformekin eta aldaketa politikoekin (Guerrero, 2001: 357). Carlos II.a Espainiako Habsburgo dinastiaren azken erregearen garaian, boterea Gaztelako goi nobleziagatik oso baldintzaturik zegoen (Imízcoz, 2016: 129) baina, Felipe V. (1700-1746) borboitarren erreforma berriek erregearekiko dependentzia garatuko zuten karguak ugaritu eta moldatu egin zituen, horrela, botere oinarririk ez (eta beraz, erregearen menpekotasuna zuten) pertsonaz bete zuen gortea, sozialki gora egiteko erregea beharko zutelarik. Modu honetara, euskal kapareen egoera paregabe bihurtzen zen, errealitate politiko administratibo berrira hobeki moldatzen ziren heinean.

XVIII. mende hasieran, beraz, erreforma ugari aurrera eramaten ziren, hala ere, erreforma hauek aurrerantzeko monarka borboitar guztiek aurrera eramaten saiatuko dira. Hauen helburua, noblezia estamentuaren egituraren eta funtzionalitatearen eraldaketa bat ematea zen, hauek koroarekiko dependentzia gehiago garatuko zuten meritu pertsonalaren eta monarkiaren zerbitzua goranzko sozial horretarako giltzarri bihurtuz (Molas, 1996: 52).

Gainera, erreformekin merkataritza eta bestelako jarduerak duintzeko neurriak bilatu ziren, hots, ekonomian jarrera parte-hartzailea izango zuen noblezia bat sustatzea. Arestian azaldu dugun euskaldun kapare/merkatari izaera dual horrekin primeran txertatzen zena ideia hauen bultzatzaile nagusienetakoak euskal jauntxo ilustratuak izan ziren, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-en buruetako askok jarrera aktiboaren aldeko apustua egin zuten, G.F. Coyer frantziarraren *La Noblesse Commerçante* (1758) argitalpeneko ideien hedabide handia izan ziren heinean (Astigarraga, 2003: 47). Eta beraz, noble izaera eta Gaztelako gizartean duintzat hartzen ez ziren jardunak bateragarri bihurtzen ziren, euskaldunaren irudia indartuko zutelarik (Arrieta, 1998: 47).

Hau da, XVIII. mendean ematen den aldaketa handiena kaparetasunaren beraren kontzepzioan egongo litzateke, botere zentralak erregulatutako errealitate juridiko bihurtzen da, hots, monarkiaren zerbitzupeko eta fiskalizatutako estatutu juridikoa (Pérez León, 2012: 266). Horrenbestez, noblezia berri baten agerpena baino, pribilejiozko izaera zibila duen noblezia bat izango da kaparetasuna, hots,

kaparetasuna erregearen irizpen edo eskumenera mugatua zegoen. Jorge Pérez León historialariak jasotzen duen bezala, ideia honen defendatzaile sutsuenetarikoa XVII. mendearen bigarren erdialdean kokatzen den Bernabé Moreno de Vargas dugu. Autore honek, noblezia erregeak ematen duen pribilejiozko eskumen juridikoa dela aldarrikatuko du, *“la nobleza e hidalguía es aquella que los reyes conceden”* eta beraz, izaera zibil eta politiko bat (Moreno Vargas, 1655: 11, Pérez León, 2014: 139-149an aipatua).

Dena dela, nobleziaren estamentuarekiko edo kaparetasunarekiko ikuspegi honek izaera berezia hartzen zuen euskaldunen (batez ere, Gipuzkoako eta Bizkaiko) kaparetasun unibertsalaren testuinguruan. Izan ere, arestian ikusi dugun bezala, XVI-XVII. mendeetan entitate propioa zuen odolezko kaparetasunaren oinarriak gorpuztu eta finkatu egin ziren. Kasu honetan, esan daiteke, kaparetasunaren izaera zibil edo politikoa guztiz loturik gelditzen zela orube batekin (*“nobleza de solar”* bezala ezaguna) (Pérez León, 2014: 132), eta beraz, hau egituratzen zuen probintziaren instituzio eta barrutietara.

Horrenbestez, eta testuinguru honetan, Jon Arrieta Alberdik deskribapen honetan primeran ikusten da XVIII. menderako gorpuztu zen euskal foruen izaera honen muina zein zen

“Vizcaya consiguió dar cuerpo a una estructura en la que se aunaron igualdad y la valoración positiva de una extendida condición noble, con el trabajo, la producción de bienes y el comercio, todo ello bajo un adecuado tratamiento legal y equilibrada relación con la monarquía” (Arrieta, 2016: 91).

Beraz, aurreko atalean ikusi dugun bezala, euskal kaparetasunaren eta merkataritzaren interesak uztartu egiten ziren, eta euskaldun izateak, kapare egiten zituen heinean, pribilejiozko egoeran uzten zituen merkatariaik, bai probintzien barruan nola inperioaren merkatal hiriburu nagusietan. Horregatik, kasu askotan euskaldunen igoera sozialaren oinarria merkataritza izan zen, Indietako eta Europa Iparraldeko, batez ere Frantzia, merkatuekin erlazio oso estuak izan zituzten Aro Berri osoan zehar (gaztelako artile, euskal burdin, nafarroako pattar etabarreko

esportazioan oinarritua) (Alberdi, 2002: 135). Egoera hau batez ere XVII. mendeko Gaztelaren merkatal sareen krisiaren ondorioz eman zen, Kantauriko isurialdeko eta Penintsula hegoaldeko portuak indartu egin zituena, Europarekin eta Amerikako portuekin merkatu-sare indartsuak sortuz⁶.

Dinastia berriaren etorrerarekin, negozio gizonen eta koroaren arteko erlazioak estuki lotu ziren. Alde batetik, arestian plazaratutako koroarekiko dependentzia sareak egongo lirатеke. Baina, menpekotasun hau duala zen, hots, koroak elite boteretsua (funtsean, dirua zutenak) osatzen zuten pertsona hauen beharrak ere bazituen, izan ere, garai horretako ogasun krisiak, hein handi batean gerra gastuak eraginda, gaitz endemikoa ziren Monarkia Hispanikoaren egoera ekonomikoan. Testuinguru honetan, Ondorengotza gerraren (1701-1713) eta monarka berri honen behar finantziario hauetara modu egokian moldatu ziren, jada Carlos II.aren gortean aritzen ziren ipartar merkatal elite hau. Adibide esanguratsuen, eta historiografiari dagokionez kasu aztertuenetakoa izan dena, Juan de Goyeneche Baztandarra genuke. Ondorengotza gerran (1701-17013) Felipe V.aren garaipenean parte hartze aktiboa izan zuena (finantziario eskeiniz) eta golardatu zutena, Ogasun Errealaren kargu gehienak okupatu zituztelarik. Eta gerora, Baztango bailararen beste protagonista batzuen igoera soziala bermatuko zuen, koroaren zerbitzupuan, negozio bitartez edota koroari zerbitzu finantzieroa eskainiz. Baina adibide gehiago badaude, adibidez, Rafael Guerrerok bere tesian aztertzen duen José de Sorabururen (hau ere nafarra) kasua (Guerrero, 2001: 357-421).

Bukatzeko, esan daiteke, gortean zeuden probintzietako pertsona edo influentzia sare hauek Fernando VI.a, Carlos II.a eta Carlos IV.aren garaian presentzia handia izaten jarraitu bazuten ere, ez zuten lehen borboitarrekin izan zuten presentzia, influentzia eta kontrol handi hori inoiz berriro lortu (Angulo, 2010a: 75).

Dena dela XVIII. mendean zehar gortean presentzia galtzeak ez du esan nahi euskal merkatariek inperioko zirkuito ekonomikoan presentzia galdu zutenik, are gutxiago, Madril, Cádiz, Mexiko, Lima, Buenos Aires, Venezuela edo Guatemala

⁶ Hori dela eta, hainbat autorek XVII. mendeko krisi orokorra definizioa ukatu egiten dute, kasu batzuetan XVII. mendeko ekonomiaren birregokitzapen terminoa erabiliz.

bezalako merkatal zentruetan nagusi izaten jarraitu zuten (Imízcoz, 2016: 149; Aragón, Angulo, 2013: 171). Gainera, Inperioko zentruan ikaragarritzko presentzia zuten, izan ere, datuen arabera, 1750-1850 urteen bitartean gorteko merkatar handien %79a penintsulako iparraldekoa zen. Are gehiago, 1797- 1860 urteen bitarteko datuak hartuz, soilik iparraldeko lurraldeek gortean euren pisu demografikoa gainditzen zuen ordezkari politikoak zituzten (Cruz, 2000: 159).

Gainera, euskaldun merkatar handiak euren jardura ekonomikoak dibertsifikatu zituzten. Hala, nahiz eta gortean teorian presentzia galdu, banku nagusien sorreran paper oso garrantzitsu bat jokatu zuten (adibidez, San Carlos bankuaren sorreran, edota XIX. mendeko espainiar jaulkipen bankuen jatorrian). Esan daiteke, 1750-1850 urteen bitartean euskal, nafar eta errioxar jatorrizkoek Madrilgo bankarien %56.5a osatzen zutela (Angulo, 2016: 273).

Baina, influentzia politikoaren gainbehera, hainbat faktoreen ondorio etorri zen, izan ere, XVIII. mendeko bigarren erdialdean jurisdikzio berezia izateak batzuetan monarkiarekin talka edo konfliktu ugari izatera bideratu zituen probintziak, gainera, kontutan izan behar da, oro har euskal instituzio eta agintarien aurkako jarrera ere oso orokortua zegoela gortean (Angulo, 2010a: 75-76). Ezadostasun testuinguru horretan, berezko ordenamenduaren defentsarako Fontecha eta Larramendi jurista eta poligrafoen obra doktrinalen presentzia adierazgarria da (Alberdi, 1998: 51; Rubio, 2003: 100).

5. Identitate adierazpenak: Euskal nortasun bateratu elitista baten kontzientzia

Historialari batzuen aburuz, XVIII. mendean zehar eman ziren aldaketa eta erreformen ondorioz, kapare kondizioaren aintzatespen bat eman ez ezik, honen inguruko identitate baten indartzea ere antzematen da, eta horrenbestez, nobleziaren identitate kolektibo bati buruz hitz egiten dute, odol garbitasunean eta ogibide edo jardura ekonomiko baten parte hartze ezean oinarritzen zirenak (euskaldunen kasuan hau oso malgua zen). Eta beraz, elementu hauek funtsezko izanik, errealitate hauek sostengatuko zituen frogatze eta adierazpena funtsezko bihurtzen zen (Pérez León, 2012: 265).

Beraz, argi ikusten da Aro Berriko gizarte estamantaletan noble estatus edo kondizioaren adierazpen eta erakusketa idealizatu hauek oinarri funtsezkoak bihurtzen zirela, gainontzeko biztanleetatik bereizten zuten ezaugarriak zituen identitate kolektibo nobiliario bat sortzen zuten heinean.

Nik ordea, merkatal gizonen erlazio identitarioak defendatuko ditut⁷. Ez gaur egungo euskal identitatearen kultura hegemonikoaren ikuspegitik, baina bai gaur eguneko identitatearen definizioarekin. Eta beraz, euskal lurralde hauetako jatorrizko edo hauen ondorengo izateak suposatzen zituen abantaila juridiko fiskal horiek profitatzeak sortzen zituen jaioterriarekiko lotura horiek aztertzea izango da helburua, hots, hauek euren buruarekiko zuten euskal nortasunaren kontzientzian. Erdi mailako merkatarik batek gipuzkoar edo bizkaitar izateagatik, adibidez, Inperiko sare ekonomikoko zentru nagusietan zituen abantailak (kapare izatea) honen jatorriarekiko zituen loturen frogapenean oinarritzen ziren heinean, euskaldun irudi bat ezinbestean sortzen zen.

Idea hauek guztiz lotzen ditugu garai horretan euskaldun identitatea kontsideratu dezakegunarekin. Izan ere, orubeak noble bihurtzen zuen momentutik, lurralde edo bertako instituzioekiko lotura zuzen bat ematen zen, diskurtso historiografikoekin eta beraz, izaera juridiko bereizgarri batekin legitimatzen zela. Horrela, probintzia edo lurralde hauetako errealitate hori sostengatzen zuen euskaldun kapare irudi baten defentsak foralitatea bera babesten zuen. Horrenbestez, euskaldun izateak ezaugarri jakin batzuez eraikitako (identitate jakin bat osatuko zutenak?) noble bihurtzen zituen, euren euskalduntasuna izaera bereizgarri horren defentsarekin batera ematen zen heinean, irudi jakin baten zainketa ezinbesteko bihurtuz. Nortasuna beraz, berezitasun instituzional batzuen erroan sortzen zen.

Ikuspegi hau batez ere, ez zen oso ohikoa izango probintzien barnean, hau da, gipuzkoar herritar batek ez du bere identitate euskaldun baten kontzientzia beharrik, hots, ezin dugu gaur egungo testuinguruaren parametroetan kokatu zeinetan, bakoitzaren nortasunaren aldarrikapena oso ohikoa den. Zertarako aldarrikatu

⁷ Merkatal elite honetan emakumeen parte hartzea urria zen eta hauen paperaren inguruko ikerketak oraindik urriagoak.

bizkaitar edo arabatar baten anaia (arriba) zarela probintziaren baitan? Are gehiago, kasu askotan, Bizkaitarrak eta Arabarrak edo Nafarrak Gipuzkoako herrietan kanpotarrak kontsideratuak izaten ziren. Hor dago koxka eta lan honen helburua. Identitatea identitate horren zonaldearen kanpo aztertu behar da, hau da, probintzietatik kanpo, non zure probintziar izaera bereziak, pribilejiozko egoera baten uzten zaituen, eta beraz, euskalduntasuna (vizcaínos edo vascongados izatea) defenditu eta aldarrikatu beharreko egoera bat ematen zen.

5.1. Odol garbitasunaren garrantzia euskal kapare irudian

Esan dezakegu beraz, Aro Berri osoan zehar eman ziren kaparetasunaren aitortza prozesuetan eta horrenbestez, odol garbitasunaren erakusketek zuten garrantzian ideia hauek garbi ikusten direla. Are gehiago, garai honetan odol garbitasun espedienteak oso ugariak egin zirenez, Felipe V.ak 1703ko ekainaren 27an ateratako Errege Zedula batek dioen bezala, debekaturik gelditzen zen kapare aitortza prozesuetarako Arabako probintziaren artxiboetako idatzi originalak ateratzea⁸. Prozesu hauek garrantzi handia zuten Ameriketako gizarteetan. Izan ere, Jorge Pérez León historialariak dioen bezala, gizarte indianoan, zeinetan konplexutasun etnikoa handiagoa zen, odol garbitasunaren adierazpenak paper are funtsezko eta erabakigarriago jokatzen zuen, eta askotan aitaren familiaren abizena ez ezik, abizinen bilinealtasunaren alde egiten zuten, horrela, odol garbitasuna bi aldetatik frogatua gelditzen zelarik. Adibide gisa, Limako hirian zegoen Martín Antonio de Aramburu y Echeverría genuke, Santiago ordeneko habito eskakizuna egin zuenean amaren familiaren abizena (Lorena de Echazarreta) hartu zuelarik, hau da, Martín Antonio de Aramburu y Echazarreta (Pérez León, 2012: 265-267)⁹.

Hau da, hainbeste zaintzen den balizko euskal irudi noble hori, zeinak diskurtsoaren legitimazioaren oinarri den, desberdintasunean oinarritutako bereizgarri identitario bezala hartzea egokia izango litzateke? Beraz, identitatearen definizio hertsia harturik, defenditu daiteke euskal identitate baten defentsa egotea,

⁸ Apellanizko Udal Artxiboa, C. 198, nº 17.08.

⁹ Expediente provisional de hidalguía de Martín Antonio de Aramburu y Echeverría, natural de Zumarraga y vecino y del comercio de Lima, ARCHV, Sala Hijosdalgo-pleitos, Caja 1030-16.

zonalde honetan bereizgarri eta desberdinu egiten zituen elementu esanguratsu baten defentsa aldarrikatzen dugunean, hots kapare kondizioaren (*hidalgúa de solar y nobleza originaria*) apartekotasuna Monarkia Hispanikoaren barruan?

5.2. Migrazio prozesuak euskal irudi bateratu baten adierazle

Kaparetasunaren eta identitatearen arteko loturak ulertzeko ezinbestean azaldu beharko litzateke XVII. mendearen erdialdetik penintsularen iparraldeko lurraldeetatik ematen diren migrazio sare berri hauen agerpenaren fenomeno (Angulo, 2016: 278). Hots, probintziako biztanleen artean mugikortasun sozial eta geografiko handiko prozesuak eman ziren Aro Berrian zehar, hauek XVII. mende bukaeratik handitu eta XVIII. mendean gailurra joko zutenak. Honek ondorio sozialak nabariak izan zituen, alde batetik, migrazio kate zaharren “babesetik” at zeuden fluxuak ziren heinean, eta beraz, ezbai handiko prozesu handiak izanik, bereizgarri identitarioak definitu eta mantentzeko behar eta ardura handiagoa zegoen. Kapital sozialari buruz, “*capitales relacionales y asociativos*” (Angulo, 2016: 278-279), hitz egiten ari gara, beraz. Hau da, izaera edo jatorri komun baten konzienzia horrek elkar harreman eta laguntza sare errotuak indartu zituen.

Hori dela eta, egitura polizentrikoa zuten inperio hauetan migrazio sare eta lurralde berrietan sortutako komunitateak (*self-organizing networks*) oso modu orokorrean ugartuko ziren. Horrenbestez eta testuinguru honetan, merkatarien azterketa oso interesgarria litzateke, komunitate hauen sorreran paper funtsezkoa baitzuten (hauek mundu hispanikoko zentru komertzial nagusietan ezartzen zirelako, Cádiz, Sevilla, Madril, Mexiko eta Lima besteak beste). Adibidez, Francisco Ignacio de Alzaga, Pedro eta José Antonio de Armona anaiak eta Antonio López Portillo merkatarien kasua (Angulo, 2010a: 72-73).

Hasiera batean, hain garrantzitsuak izan ziren San Ignazio kongregazio eta Nafarren San Fermin kongregazioan negozio gizonak aurkituko ditugu adibidea, Pando y Bringas, Unzueta, Jarabeitia, Vélez de Larrea, Estacasolo y Otalora etab. Hauetako batzuek Indietako negozio mundutik zetozen (Guerrero, 2010-2011: 184-193). Baina denborarekin administrazioan eta borboitar gorteko kargu

garrantzitsuagoak izango dituzten pertsonak nagusitu ziren, hots, erregaren zerbitzuan eragin nabariagoa izango zutenak, alegia. Hau da, *“la participación de los hombres de comercio en la Bascongada como en la Real Congregación o en las conferencias iniciadas en 1775 quedaba solapada por el protagonismo de las principales familias de la nobleza”* (Angulo, 2010a: 74-75).

Baina, San Ignazio kongregazioaren sortzaileetako askok Ogasunaren eta Indietako administrazioan karguak betetzen zituzten, bai eta idazkari (Secretaría de Despacho) eta kontzeilu askoren kontularitzan besteak beste. Askotan kargu hauek pertsona hauek izango zituzten interes ekonomiko partikularrekin erlazionatu behar ditugu. Hori dela eta, askotan dokumentuetara jotzean, merkataritza lanbidea omititu egingo da bestelako kargu hauek ordezkaturik (Pérez León, 2012: 274-275). Dena den, merkataritza hauen garrantzia ikaragarria izan zen, izan ere, José María Imízcoz historialariak dioen bezala,

“estuvieron en el origen de importantes ascensos sociales, como muestra la historia del vizcaíno José Negrete y Sumiano, origen de los futuros marqueses de Campo Alange, o de José Ignacio Gardoqui y Meceta, eslabón de importantes negocios y carreras de bilbaínos en la segunda mitad de la centuria” (Imízcoz, 2016: 127).

Horregatik, euskal probintzietatik kanpo emigratu zuten eta ekonomikoki arrakasta izan zuten hauen arteko erlazio, loturak, influentzia sareak, mugikortasun sozial, laguntzak etabarrekoak ikerketa paregabeak lirakeke euskal elementu identitarioak identifikatzeko, eta hauen artean euskal nortasun bateratu baten kontzientziazioaz hitz egiteko.

Izan ere, errealitate juridiko batetik elementu identitarioak nola garatu diren azaltzeko, eta beraz, *Cantabria* edo *Provincias Cántabras* batetik probintzia *Bascongado*etara nola igaro ziren ulertzea beharrezkoa da (Angulo, 2012: 55), izan ere, Probintziek nola euren jatorrizkoek probintziekiko eta hauek suposatzen zutenarekiko ikusmoldea labur aztertuz, XVIII. mendean aldaketa handia ematen dela nabari da. XVI. mendean zehar probintziek nahiko banandurik jokatzen zuten, eta bai probintziak eta Jaurerria (eta erreinua) bananduak ikusiko ditugu batez ere,

bakoitza bere aldetik dihoalarik. Hau da, ez dugu bateratuko dituen kontzepturik aurkituko, eta aurkitzekotan *Provincias del Norte* edo *Provincias Cántabras* bezalako izendapen orokorrak azalduko dira. Hauek zonalde zehatzik identifikatzen ez dutelarik.

Gainera, XVIII. mendean Ondoregotza gerraren (1700-1714) eta honek izan zituen erreinuaren barneko ondorioen ostean, probintzia hauekiko pertzeptzioan aldaketa handi bat eman zen, “*provincias exentas*” deitura orokortuko zen heinean, hau da, jurisdikzio propioz osatutako lurralde anitzen batasun horretako probintzia bereiziak ziren, hots “*excepciones a la norma*”, eta beraz, jurisdikzio, fiskalitate, defentsa propioak eta muga-zergak zituzten bakarrak. Honek, noski aldaketa handiak suposatu zituen probintziako biztanleen izaera eta monarkiarekiko jarreran (Arrieta, 1998: 46).

Dena dela, eta historiografia tradizionalari jarraiki, XVIII. mendean sortzen diren Real Sociedad Bascongada de Amigos del País eta 1775tik aurrera ematen diren Konferentzia Foralek (1775-1800 bitartean), vascongado hitza gortean normalizatzeko elementu funtsezko izan zirela aldarrikatzen da, euskal batasunaren kontzientziaren (probintzien artekoa) lehenengo seinaleztat hartzen direlatik (Agirreazkuneaga, 2011: 93-116).

Dena den, bibliografía eta dokumentuei esker, jakin dugu batasun hori lehenengotik jada ematen dela, alde batetik, arestian aipatutako 1677-1683ko Francisco de Zavala y Mendozak proposatutako Kongregazio baten sorrera saiakeran, edota mende hasieran sortutako *La Real Congregación de Naturales y Originarios de las Tres Provincias Vascongadas* (1713-1896), zeinetan, batasunaren eta probintzien anaiartekotasunaren ideia oso modu garbian ikusten den (Angulo, 1999: 17-18; 2012; 2013).

Izan ere, XVIII. mende erdialdetik sortuko diren anaidi, kongregazio eta XVII. mendetik ematen diren batasun saiakera hauetan probintziek eurekiko zuten kontzepzio aldaketa ikus daiteke, izan ere, garai honetatik aurrera anaiartekotasunaren ideia asko orokortuko da, probintziak elkarren “berdintasun” egoera batean ikusiko direlarik. Azken batean, “*hermandad, fraternidad, situación*

de igualdad entre provincias...”¹⁰ bezalako kontzeptu amankomunak oso ohikoak bihurtu ziren. Adibide bat ematekotan, 1755ko apirilaren 8an (Gipuzkoako altxamendu eta protesten testuinguruan), Bergarako San Pedro eliza parrokiako portikoan errezitatutako ahozko testu anonimo honetan arestian esandako ideia hauek oso garbi ikusten dira: *“Y si no puede vivir un Rey sin otro Rey como puede conservar la Provincia de Guipúzcoa sin Alaba y sin Señorío de Biscaya: es mui imposible y se puede aturdir mirando a la razón”*¹¹.

Hemendik bi ondorio atera daitezke: alde batetik, herriaren kontzientzia bat egon zitekela planteagarria litzatekeela, eta bestetik, tradizio oralaren garrantzia ikusirik, hauek ezagutzeko ditugun arazoak eta mugak perspektiba handiagoa izateko hutsuneak direla.

Beraz, atal honetan ikusi dugun bezala, kongregazioek euskalduntasun ideia bat eman dakigukete, azken batean, probintzietatik kanpo nortasun elementu berdinak dituzten pertsona batzuen kontzientzietatik biltzen diren heinean. Hots, euskal irudi baten kontzientzia badago baina, ikusiko dugun bezala, probintzietatik kanpo eta interes partikularrei (ekonomikoak gehienbat) oso lotua. Dena dela jarraian kofradia hauenganako probintzien jarraipen eta interesa, bai eta emigratzaile (indiano) eta probintzien arteko elkar harreman handia, harreman identitario horien adierazle gisa aztertuko ditugu, zeinetan anaitasunezko harremanaren (fraternal) kontzientzia oso ohiko izango den.

5.3. Kongregazioen funtzioak: euskal kapare irudiaren babesetik identifikatutako nortasun elementuak

Kongregazio edo anaidi hauen helburua, teorian, laguntza espirituala eta jatorrizko pobrenei hileta zerbitzuak ematea ziren batez ere (Angulo, 2015: 127). Baina, funtsean, inperioaren bihotzetik eta honen hiriburu nagusienetatik modu koordinatu batean talde elitista baten interesak (ekonomikoa, politikoak eta juridikoak) defendatzeko sortutako erakundeak ziren. Hots, igoera sozialerako

¹⁰ Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa, Administración de Bizkaia, Gobierno y asuntos eclesiásticos, AJ01613/004.

¹¹ Artxibo Historiko Nazionala, Consejos, Ig. 241, pieza 2, 9. Folioa (Iñurrategui, 1996: 27).

kolokazio agentzia eta negozio politikoen lobby gisa jarduten zuten (Angulo, 2015: 126). Dena dela, lan honetan ez da kongregazio hauen funtzioa ikertuko, kongregazio hauetan dauden merkatal elite horien parte hartze eta negozioak baino, hauetatik nortasuna iradoki dakiguen elementuak aztertzea baizik.

Izan ere, kolokazio asoziazio bezala funtzionatzen zuten kongregazio hauen helburu nagusienetakoa, kaparetasun unibertsala zen izaera juridiko bereizgarri horren 19ain19a zen. Migrazioaz profitatzeko eta hori 19ain19a eramateko kaparetasunak ematen zuen pribilejiozko egoera hori maximora eramatea, alegia. Kasu honetan, arestian aipatutako euskal noble irudi horren 19ain19a funtsezko bihurtzen zen (Angulo, 2010a: 67). Eta gazte euskaldun migratzaileen jarrera zaindu behar zen heinean, oligarkia probintzialen diskurtso politikoaren legitimazioa ezbaian jarri zitekeen heinean (Angulo, 2012: 59-60). Azken batean, asoziazioen garrantzia identitate amankomun baten eraketan oso agerikoa litzateke, betiere, identitate hau irudi eta elite baten interes batzuen defentsan ulertzen badugu.

Izan ere, kongregazioen beharra gehienbat esparru juridikoetara mugatu badugu ere, kontutan izan behar da probintzien bateratze saiakerek, batez ere gortean erantzun amankomun bat emateko egindako bilkurak zirela, eta beraz, batasun baten kontzientzia garatu behar zela, hots, Alberto Angulo historialariak adierazten duen bezala, *“estas cofradías y congregaciones (reales o no) nutrieron los rasgos de identidad (confesionales y políticos) del asocianismo, de raigambre medieval étnico norteño”* (Angulo, 2014: 89).

Dena dela, berriro ere kontuz ibili behar gara kontzeptuekin, izan ere, arestian aipatu ditugun kongregazioetan 19ain agertzen den *vascongado* terminoak ez zuen beti hiru probintzien (eta kasu batzuetan erreinuaren) batasun hori bakarrik adierazten, bestela ikusi Liman 1613an sortutako “Hermandad Bascongada de Nuestra Señora de Aranzazu”, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Itsasoaren kostako lau *Villen* (Laredo, Castro Urdiales, Santander eta San Vicente de la Barquera) jatorrizkoak biltzen zituena (Angulo, 2010b: 19-20). Identitatea ere, beraz, oso malgua zen, izan ere, nahiz eta probintzietako jatorrizko (naturales de) pertsonak osatutako kofradiak izan, hots, izadiaren araberako irizpideak haintzat hartzen zirenak, irizpide hauek nahiko malguak ziren, manipulatu zitezkeen, eta beraz,

probintziekin edozein erlazio izanda sartzeko aukera zegoen, adibidez, lurralde hauetan ondasunen jabetzan izatearekin. Horren adibide esanguratsuenak, Albako dukea delarik (Angulo, 2010b: 22).

Horrenbestez, kofradien benetako funtzioak ikusita, esan dezakegu, irizpide garbirik ez zuen identitate bat zutela euskal elite hauek, hau da, bereizgarri euskalduna ulertu behar dugu, 20. ainetan bereizgarri horiek ez ziren sentitzen zuten barne bereizketa kultural propio baten ikuspegitik egingo, juridikoki lehentasuna eskaintzen zuten egoera pribilejiadun baten babesagatik, alegia. Izan ere, Gellner pentsalariak esaten zuen bezala, identitatea ez da funtsean erro linguistikotik edota kulturaletik sortzen den eraiketa bat izango, elite batek dituen interesak (eta gehienetan ekonomikoak) bermatzeko sortutako diskurtso batetik baizik (Zabaltza, 2018:163).

5.4. Euskal merkatarien loturak eta batasunak eta elite baten identitate adierazpenak

Dena dela, merkatal gizon hauen anaiartekotasunaren elementuak hainbat adibiderekin identifika ditzakegu. Izan ere, elite euskaldunen arteko erlazio itsas haraindikoak oso arruntak eta funtsezkoak izango dira euskal irudi edo euskalduntasun horren babesean (1715ko San Ignazio Kongregazioko konstituzioko atalean Ameriketako kideak babestu behar zirela aldarrikatzen zen) (Angulo, 2012: 65). Gainera, eta adibide gisa, Martín de Sarratea genuke (Buenos Aireseko Bascongadoaren ordezkari izan zena), erreinuan zehar sakabanatuak zeuden euskaldun horien maitasun abertzalea sustatu behar zela aldarrikatzen zuena (Angulo, 2009: 7-8). Edo Luis Manuel de Madariaga Bucareli Sevillan zegoen merkataria euskaldunak (Real Sociedad Bascongadako kide izan zena) helburutzat *“afianzar los privilegios de unos territorios distinguidos en la defensa y fidelidad a la corona”* (Angulo, 2010a: 73). Ideia hauetan behin eta berriro errepikatzen ari diren hainbat kontzeptu azaleratzen dira, alde batetik, pribilegiozko egoera horren defentsari dagokiona, eta bestetik, euskal foruen (eta euskal kapare) irudi horren muina, koroaren defentsan eta lehialtasunean oinarritua.

Inperiotik zehar sakabanatuak zeuden merkatarien eta Madrilen influentzia zentrugune gisa jarduten zuten kongregazio hauen arteko harremanak oso estuak ziren, arrakasta izan zuten merkataria hauek kongregazioen iraupenaren eta ongi joatearen aldeko donazio eta diru laguntzak oso ohikoa ziren heinean. Adibidez Cadizeko José de Quintanak egin zituen donazioak San Ignazio Anaidirai (Angulo, 2009: 11). Alberto Angulok jasotzen duen 1893ko *Euskal-Erria* aldizkariko pasarte horretan XVIII. mendeko egoeraren memoria egiten denean, ideia hauek garbi azaltzen dira “*la congregación, cuando ha pasado por tiempos de ahogo y de penuria se ha podido salvar por el desprendimiento generoso de algunos bascongados que, en España ó desde América, la han ayudado con sus donativos*” (Angulo, 2009: 6).

Lurraldekoasun sentimendu handia adierazten zuten erlazioak oso ohikoak ziren eta hauek askotan jatorrizko bizitokiarekiko elkar-harremanen mentuarekin ez ezik, hauenganako zuten izarea “karitatiboan” ere islatzen dira, adibidez, Leitza eta Latiyera anaia andoindarren kasua, zeinak, izandako irabazien zati bat jatorrizko lurraldera zuzendu zuten (Angulo, 2013: 63).

Izan ere, elite hauen arteko loturetan korrespondentzia edo gutuneriak ikaragarriko indarra zuen, harreman identitario hauen muina ulertzeko iturri paregabeak direlarik. Adibidez, San Ignazio kongregazioak tokian tokiko eliteekin, diputazioko agente politiko foralekin mantendu zituen harreman onak (interes askorengatik elkarlotua), azken batean, koordinaturik jarduten zuten sare hauen inguruko garrantziaz ideia bat egin genezake (Angulo, 2013: 71-75).

Testuinguru honetan, probintziarekiko jarrera aztertzea ere funtsezkoa da, probintzia Ama probintzia zen, eta probintziak paper funtsezkoa betetzen zuen, izan ere, elkarren artean uztartzen ziren lotura guztien parte baitzen, hots, *Quid pro Quo* bat ematen zen (Angulo, 2012: 64; 2015: 126). Nortasuna emateaz gainera, identitate hori legitimatzen zuen egitura instituzional bat zen, diskurtso hauek defendatzeko interesa zuena, noski. Foru sistema politikoaren defentsa historiaren produkzioarekin sustatzen zen, adibidez, XVII. mende bukaeran Gipuzkoako probintziaren eskubide

historikoak defendatuko zituen produkzio historiko¹² kontrolatua erabakigarria izan zen zen (Aragón, Alberdi, 1998: 40) edota foru sistemaren eta probintzien irudiaren zaintza funtseko zen, adibidez, eta nahiz eta gure mendekoa ez izan, deigarria Bizkaiak Juan García de Saavedraren aurka izandako errakzio eraginkorra (Angulo, 2015: 121).

Probintzien eta eliteen arteko harremanak funtzezkoak izango dira beraz, azken batean, bat egiten zuten eta diskurtsoaren eta izaera bereizgarriaren defentsan batera jarduten zuten “erakundeak” ziren. Esanguratsua da adibidez Gipuzkoako probintziaren, Donostiako kontsulatuaren eta Madrilen kokatua zegoen elite horien batasuna Carakasko Errege Konpainiaren sorrera aztertuz (Garate, 1990:19).

6. Probintzien izaera juridikotik emandako identitatea

Foru legeen aldeko diskurtsoek Erdi Aro berantiarrean zehar egindako kontakizun sasi-mitiko horiek (Tubalismoa, Vasco-Cantabrisma) lurralde edo instituzio zehatz edo nabarmen batzuekin bat ez bazeuden ere, horietatik moldatuz joango diren defentsa diskurtso funtzionalek (muga diskurtsoa, paktismoaren ideia, besteak beste¹³) jada probintzia jakin batzuen eta “onartua” zegoen egoera juridiko ohiz kanpoko baten magalean errotuko ziren, eta beraz, nortasunaren aldetik, norbanakoak oso erraz identifika zitekeen lurralde edo errealitate juridiko batera.

Hau da, Gipuzkoako probintzian jaiotzen zen merkatari batek erraz sortuko zuen bere nortasuna, probintziak berak legitimatutako kapare irudi idealizatu eta kolektibo batekin bat egin eta hau jatorrizko lurraldetik at defenditu egiten zen, hots, ez zen identitate bat bilatu edo sortu behar, probintziak berak inperioko egituretan primeran txertatzen zen nortasun bat ematen zuen heinean (Monarkia Hispanikoaren identitatearekin talka egiten ez zuena).

¹² XVIII. mendeko *Guipúzcoa: su antiguo gobierno y originaria nobleza*. Arabako Lurraldeko Artxibo Historikoa, Fondo Prestamero, 8, 3, 1. eta 1785ko *Historia del Ilustre País Bascongado comprendido en sus tres M.NN. y M.LL. Provincias, el Señorío de Vizcaia, Guipúzcoa y Alava, su antigua y moderna geografía desde los más remotos siglos hasta el actual*. Loiolako Santutegiko Artxibo Historikoa, Legajo 01, 08.

¹³ Argumentos de Defensa presentados por Guipuzcoa contra la cedula Real de los Arbitrios de Sal. Aguraingo Udal Artxiboa, 04, nº 409.

Hortaz, gortean bakoitza Monarkia Hispanikoko onena zergatik zen eta horrenbestez, erregearen mesedea zergatik behar zuen defendatu behar zuten. Hori dela eta, esan dezakegu, entitate juridiko propioa zuten lurraldeek erregearen onarpena bilatu nahian diskurtso identitario bat sortu beharko zutela, kasu honetan, probintziako ordezkariak probintziak subdito onenak zergatik ziren eta beraz, pribilegioak zergatik zituzten defendatu behar zuten etengabe, koroarekin etengabeko akordio bidezko harremana eratuz. Horrenbestez, izaera juridikoa defenditzeko desberdin egiten zituzten elementuak azpimarratu behar zituzten, adibidez, hain ohikoa zen muga diskurtsoaren baitan probintziakoek euren burua monarkiaren babesletzat hartzea (Aragón, 2014: 400-410).

Hau da, Coro Rubio Pobes historialariaren hitzetan jasotzen den bezela:

“su elite política se esforzó en afirmar la existencia entre estos territorios de una comunidad supraprovincial específica, singular y diferenciada respecto al resto del Estado, y acabó definiendo un código de identidad colectiva que permitió a vizcaínos, guipuzcoanos o alaveses reconocerse por primera vez como vascos” (Rubio, 2014: 59).

Horregatik, identitate euskalduna Monarkia Hispanikoaren Inperioearen egitura batzuetan osatzen eta gorpuzten den fenomenoak genduke, hau da, testuinguru politiko eta sozial bati hobekien txertatzen zitzaizkien elementuak osatzen zuten nortasuna, gainontzekoekiko bereizgarria baina koroarekin eta beraz, erreinuarekin (hauxe genduke arestian azaldutako Espainiaren ideia) bat egiten zuena.

7. Ondorioak

Laburbilduz eta ondorio gisa, hainbat ideia edo hausnarketa atera ditzakegu lan honetatik. Izan ere, ikusi dugun bezala, euskal identitate baten inguruan XVIII. mendean hitz egitea ia ezinezko litzateke, identitatea bere zentzu hertsian hartuko bagenu. Hori dela eta, elite batek (gure kasuan merkataria) bere egoeraz profitatzeko erabilitako nortasun juridiko bezala aztertzea egokiena litzatekeela defendatu nahi izan da lan honetan.

José María Imizcoz-ek adiera bezala, *“visto desde la época contemporánea, marcada no pocas veces por la confrontación política de Euskadi y España, sorprende la intensa conexión de vascos y navarros con la monarquía hispánica en el siglo XVIII”* (Imizcoz, 2016: 126). Euskaldunak espainiarrenak ziren, esan dugun bezala, espainiar izatea erregearen subditu zela ulertzen badugu, noski. Hau da, ez ziren elementu kontrajarriak, gehiagarriak baizik, osagarriak. Izan ere, probintzia hauetako jatorrizko izateak espainiar “onena” bihurtzen zuen, eta beraz, euskalduntasunak eta espainiartasunak ezinbestean bat egiten zuten. Ikusi dugun bezala, Aro Berriko euskaldunek ez zuten ezbaian jartzen imperioarekiko zuten partaidetza, are gehiago, lurralde eta elementu anitzez osatutako inperio horretan euren apartekotasuna defendatuko zuten, Monarkiaren parte ziren baina berdintasunezko egoeran zeuden izaera propioa zuten probintzia gisa. Euskaldunek XVII. mendean izango zuten espainiaren ikuspegia beraz, erlatiboa da. Hots, XVII. mendeko Espainia, lurralde eta erreinuen aglomerazio gisa ulertzen den momentutik, ezin dugu Espainia testuinguru horretatik atera, eta beraz, euskalduntasuna parametro presentista horietatik aztertu.

Izan ere, euskal probintziek izaera horri eutsi eta legitimatzeko arestian ikusitako mekanismo eta diskurtsoak sortu zituzten, XVIII. mendera hobeto egokitzen den identitatearen definizio baten garapena sustatuz, hau da, izaera desberdina bazuten ere (eta historian zehar garapen desberdina), diskurtsoak legitimatzen zituzten irudi bateratu bat eman (eraiki) zuten.

Hala ere, hemen arazoa Euskadi eta Espainia hitzak sartzea litzateke, konexioa monarkia Hispanikoarekin zelako, identitateek talka egiten ez zuten momentu batean, alegia. Hots, Monarkia Hispanikoarekiko konexiok ez zen euskalduntasunarekin talka egiten, baizik eta kontrakoa. Adibidez, garaiko literatura eta historiografia espainiarrean euskal probintzien batasun hauek goraiatuak izan ziren (Angluo, 2010b: 29).

Beraz, euskal nazio baten existentziaz hitz egin daiteke? Galdera honi ekiten diogunean, ezinbestean burura datorkigu errealitatearen, egia historikoaren eta eraikuntza politiko-ideologikoen arteko mugak oso lausoak direla. Garai honetan,

euskaldunen identitate kolektibo bati buruz hitz egin genezake, betiere, identitatea dagokion parametroetatik aztertuz, eta horrenbestez, gure burua dagokion errealitate historikoan txertatuz. Hori dela eta, Joseba Gabilondok ondo azertu zuen bezala, hurrengo mendeetako historia “nazionala” baldintzatuko duen euskal nazioaren formazioa hemen txerta dezakegu, formazioa gerora sortuko diren errealitate batzuen gorpuzte gisa eta ez honen jatorri edo sorrera bezala ulertzen ditugun heinean (hauek ilusio ideologikoak baitira).

Izan ere, identitatea eraikuntza bat da, hots, testuinguruarekin batera eraldatzen diren prozesuak, eta beraz, elementu sozio-kultural (eta politikoak). Horrenbestez, esan dezakegu batez ere XIX. mendetik aurrera gizarteek sortutako (eta ez asmatutako) produktu historikoak direla, ezibestean oinarri bat izan behar dutenak (Rubio, 2003: 25). Eta horrela, identitatearen definizio presentista aplikatzen da, gaur egungo euskalduntasunaren ikuspegi identitarioaren oinarria Aro Berrian kokatua egongo balitz bezala.

Azken batean, ez gaude identitate kulturalista edo etniko batetik hitz egiten (euskarak elementu identitario gisa indarrrik ez baitzuen), ezta tradizio foralista batetik. Izan ere, Antzinako Erregimenean, probintzien arteko desberdintasunak oso markatuak izaten jarraitzen zuten, are gehiago, ez da inoiz existitu Euskal Herriaren forurik, beraz, batasuna, probintziek zituzten antzeko pribilejiozko elementu juridiko batzuen defentsan sortutakoa izango litzateke, hauek babesteko diskurtso edo legitimazio unitario bat emateko. Dena dela, tradizio kultural eta historiko bat ere egongo litzateke, baina lan honetan identitate hori sortzen eta indartzen zuten aspektuetan zentratu gara, hots, merkataritza batentzako euskaldun (kapare) izateak ematen zizkion abantailek bere nortasun horretan zuten eraginean, adibidez.

Identitatearen oinarrien aldaketa, foruen abolizioarekin (1876) eta bereizketa juridiko horren galerarekin ematen da, eta horrekin, hego Euskal Herrian zegoen tradizio foralista hori nazionalismo politiko batean bilakatzen dela esan daiteke. Euskal izatearen irudi berri bat sortzen da, jada, talka egiten duena espainiar izanarekin. Izan ere, Aro Berrian zehar eta batez ere, ikusi dugun XVIII. mendean Coro Rubio Pobesek ongi laburtzen duen argumentua hau izan zen: “*poseemos unas*

leyes singulares porque somos un país singular, un pueblo singular, y no pueden destruirse ellas sin agredir gravemente a éste, pues forman parte esencial de su propia naturaleza” (Rubio, 2003: 25). Bertatik identitate kodigo bat sortu zen, eta izaera hau galdu zenengan, lurralde hauek Espainiar estatu liberalaren lurralde bat gehiago ziren, sortzen ari zen espainiar nazionalismo hiritarraren (cívico) parte bihurtuz. Hortaz, nazionalismo zibikoa “*una comunidad definida territorialmente y en una frontera social entre grupos que viven en el mismo territorio*” (Souto Paz, 1998: 28) izanik, ulertu daiteke, XVIII. mendean euskal irudi edo nortasun hori eraikitzen zuten bereizgarri instituzionalen galerak, XIX. mendeko erreakzio identitario nazionalista sustatzea, mendearen bigarren erdialdean definitu, indartu eta gizartera zabalduko zena, hain zuzen. Hori dela eta, nazionalismo politikoa ezerezetik sortu ez zela oinarri hartuz, identitatearen *formazioaz* hitz egingo dugu, ideia hauek oinarri bat zutelako, baina hauen gorpuztea eta orokortzea XIX. mendean egin zen, estatu liberalarekin nazionalismo espainiarra sortzen zegoenean.

8. Bibliografia

- AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba (2011). Vasconia, Euskal Herria, Esukadiizena eta izana denboran barrena, *Jakin*, 183-184, 93-116 orr.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier (2002). Conversa izenekoak eta Lapurdiren eta Gipuzkoaren arteko harreman komertzialak Aro Berrian. En: Jurgi Kintana Goiriena eta Karmele Artetxe Sánchez (arg.) *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, Udako Euskal Unibertsitatea, 135-152 orr.
- ANGULO MORALES, Alberto (1999). La Real Congregación de San Ignacio de Loyola de los Naturales y Originarios de las tres provincias vascas en la Corte de Madrid (1713-1896), En: Amaya Garritz (koord.), *Los vascos en las regiones de México, siglos XVI a XX*, 5, México: Instituto de Investigaciones Históricas, 15-34 orr.
- (2009). Erreinuaren bihotzea. Euskaldunek Madrilen osaturiko elkarte (XVIII-XIX-mendeetan), En: *Kondaira: euskarazko historia aldizkaria sarean*, 9, 1-18 orr.
- (2010a). Embajadores, agentes, congregaciones y Conferencias: la proyección exterior de las provincias vascas (siglos XV-XIX), En: *Delegaciones de Euskadi*

- (1936-1975) *Antecedentes Históricos de los siglos XVI al XIX, origen y desarrollo*, Urazandi Bilduma, 24, 23-84 orr.
- (2010b). Tejiendo una red. Las asociaciones de naturales y oriundos vascongados en la Monarquía Hispánica (siglos XV-XVIII), En: Óscar Álvarez Gila (zuz.), *Organización, identidad e imagen de las colectividades vascas de la emigración (siglos XVI-XXI)*, Euskal Herriko Unibertsitatea. 15-33 orr.
 - (2012). Las “Tres Provincias de Cantabria” en Madrid. Influencia e identidad vascongada en la corte 1684-1775. En: Agustí Alcoberro eta Guivanni C. Cattini, *Entre la Construcció Nacional i la Repressió Identitària*, Museu d’Història de Catalunya, 53-72 orr.
 - (2013). Las geografías epistolares de las élites vascongadas y la formación de comunidades ilustradas en el siglo XVIII: la Real Congregación de San Ignacio y la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, En: Rafael Padrón Fernández (ed.), *“Las cartas las inventó el afecto” Ensayos sobre epistografía en el Siglo de las Luces*, Santa Cruz de Tenerife: Ediciones Idea.
 - (2014). Empresas comunes en España y América (siglos XVII y XVIII). La Real Congregación de San Ignacio y el clero vasco, En: Joan Bosco Amore Carredano (zuz.), *Los Tiempos de Espada: Vitoria y La Habana en la era de las revoluciones atlánticas*, Euskal Herriko Unibertsitatea 87-109 orr.
 - (2015). Los frutos de la movilidad. La emigración norteña peninsular en Madrid y el Imperio (siglos XVII-XVIII), *Obradoiro de Historia Moderna*, 24, 113-39 orr.
 - (2016). Los hidalgos norteños en el centro de un Imperio: Madrid (1638-1850). Negocios, política e identidad, En: Alberto Angulo Morales, Álvaro Aragón Ruano (koord.) *Recuperando el Norte: empresas, capitales y proyectos atlánticos en la economía imperial hispánica*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 261-296 orr.
 - ARAGÓN RUANO, Álvaro, ALBERDI LONBIDE, Xabier (1998). El control de la producción hitórica sobre Gipuzkoa en el siglo XVII. Un instrumento de defensa del régimen foral, *Vasconia*, 25, 37-52 orr.
 - ARAGÓN RUANO, Álvaro, ANGULO MORALES, Alberto (2013). The Spanish Basque Country in Global Trade Networks in the Eighteenth Century, *International Journal of Maritime History*, XXV, 1, 149-172 orr.
 - ARAGÓN RUANO, Álvaro (2014). «...faltar y ausentarse con esto los naturales de esta Provincia y quedar despoblada y hierma, sin defensa alguna...» Discursos de

- frontera en Gipuzkoa durante la Edad Moderna, En: Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga eta Eduardo J. Alonso Olea, *Estatu-nazioen baitako nazioak: naziogintza kulturala eta politikoa, gaur egungo Europan*, Editorial Bas, 400-410 orr.
- ARRIETA ALBERDI, Jon (1998). La idea de España entre los vascos de la Edad Moderna. En: *La idea de España en la Edad Moderna*, Real Sociedad Económica de Amigos del País, 37-62 orr.
 - (2014). Nobles, Libres e iguales, pero mercaderes, ferrones...y frailes. En torno a la historiografía sobre la hidalguía universal, *AHDE*, tomo LXXXIV, 800-842 orr.
 - (2016). Claroscuros de una realidad debatida: la hidalguía universal de los vascos, En: *El País Vasco, tierra de hidalgos y nobles. Momentos singulares de la historia*. Fundación Banco Santander 89-124orr.
 - ASTIGARRAGA, Jesús (2003). *Los Ilustrados Vascos. Ideas, Instituciones y Reformas Económicas en España*, Barcelona: Crítica.
 - BELENGUER CEBRIÁ, Ernest (2001). *De la unión de coronas al Imperio de Carlos V*, Madrid: Sociedad Estatal para la Conmemoración de los Centenarios de Felipe II y Carlos V.
 - CRUZ, Jesús (2000). *Los notables de Madrid. Las Bases sociales de la Revolución liberal española*, Madrid: Alianza
 - FELICES DE LA FUENTE, María del Mar (2010). Silencio y ocultaciones en los despachos de los títulos nobiliarios, *Chronica Nova*, 36, 229-252 orr.
 - FERNÁNDEZ DE PINEDO, Emiliano (1999). *Euskal Herriko ekonomi hazkundera eta gizarte-aldaketak (1100-1850)*, Bilbo:Euskal Herriko Unibertsitatea.
 - GARATE OJANGUREN, Monserrat 1990). *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*, Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y publicaciones
 - GUERRERO RECALDE, Rafael (2001). *Las Élites vascas en el Gobierno de la Monarquía Borbónica: redes sociale, carreras y hegemonías en el siglo XVIII (1700-1746)* (doktoretza tesia), Euskal Herriko Unibertsitatea
 - IMÍZCOZ BEUNZA, José María (2016). Servidores del rey, hombres de negocios, ilustrados. Las élites vascas y navarras en la Monarquía Borbónica, En: Borja Aguinalde (kood.), *El País Vasco Tierra de Hidalgos y Nobles. Momentos Singulares de la Historia*, Fundación Banco Santander, 125-180 orr.
 - IMÍZCOZ BEUNZA, José María eta BERMEJO MANGAS, Daniel (2017). Los Ilustrados vascos, de los tiempos de bonanza a la tormenta (1700-1833), En: Teresa

- Nava Rodríguez (ed.) *De los Ilustrados a patriotas. Individuo y cambio histórico en la Monarquía Española*, Madrid: Sílex. 297-343 orr.
- IÑURRATEGUI RODRÍGUEZ, José María (1996). *Monstruo Indómito: Rusticidad y Fiereza de Costumbres*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
 - MOLAS RIBALTA, Pere (1996) Élités y poder en la administración española del Antiguo Régimen, En: Imízcoz Beunza, José María (zuz.) *Élités, poder y red social. Las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 51-64 orr.
 - PÉREZ LEÓN, Jorge (2012). Reflejo de la identidad nobiliaria en Indias en los procesos de Hidalguía: El caso peruano, *Estudios Humanísticos. Historia*. 11, 265-288orr.
 - (2014). El reconocimiento de la hidalguía durante el siglo XVIII: su reformulación como calidad civil y política, *Investigaciones Históricas*, 34, 131-154 orr.
 - RENERO, Adriana. (2007). Identidad y entendimiento: Schelling o una instancia intermedia entre Kant y Hegel. *En-claves del pensamiento*, 1(2), 23-45 orr.
 - RUBIO POBES, Coro (2003). *La identidad vasca en el siglo XIX. Discursos y agentes sociales*, Madrid: Biblioteca Nueva
 - (2002). Un pueblo singular. Discurso y agentes sociales en la construcción de la identidad vasca decimonónica, *Historia Social* ,43, 59-76orr,
 - SORIA SESÉ, Lourdes (2006). La Hidalguía universal, *Iura Vasconiae*, 3, 283-316 orr.
 - SOUTO PAZ, José Antonio (1998). Nación y soberanía en la doctrina medieval, En: *Nacionalismo en Europa, Nacionalismo en Galicia. La religión como elemento impulsor de la ideología nacionalista*, A Coruña: Universidade, 1998, 23-55orr.
 - ZABALTZA, Xabier (2018). ¿Del «renacimiento» literario al nacionalismo político? Una comparación entre los territorios de lengua catalana y los de lengua vasca (1850-1900). *Historia y Política*, 39, 141-170 orr. <https://doi.org/10.18042/hp.39.06>

9. Artxiboak

- Apellanizko Udal Artxiboa.
- Arabako Lurraldeko Artxibo Historikoa.
- Artxibo Historiko Nazionala
- Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa.

- Loiolako Santutegiko Artxibo Historikoa
- Valladolideko Errege Txanzillariako Artxiboa.